

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Prentsa uniforme

MADRIL, 1938. Espainiako Gerra Zibila oraindik amaitu gabe zela, baina II. Errepublikari azken hatsa baino geratzen ez zitzaionean, frankistek 1939tik 1966ra bitartean indarrean egongo zen prentsaren legea garatu eta onartu zuten. Lege hura programa zabalago baten barruan beste atal bat baino ez zen: Espainiako historiaren norabidea zuzendu behar zen XVII. mendetik aurrera.

Francok berak zera esan zion Juan Borboikori gutun batean: “Espainiaren gaitzak ez datoz apirilaren 14aren ondoren; deskonposizio prozesuak erro sakonagoak ditu. Monarkiaz ari garenean, Errege Katolikoaren edo Felipe II.arenaz lotzen dugu. Ondorengo garaia dira eskola txarrenak, pultsurik gabeko monarkia dekadentearenak, Espainiaren jeinua kanpora islatu ordez, anti-Espainia onartu eta goratzen duen monarkiarenak”. Baina bide oker hura saihesteko fusilamenduak eta atxiloketak ez ziren nahikoak. Teknika errepresiboetatik ahalik eta etekin gehien lortu behar zen eta horretarako eskoletan eta egunkarietan sartu behar zuten. Totalitarismoaren loraldi betean, nazien eta faxisten esperientzia jaso zuten frankistek, azkenean, Italiakoa edo Alemaniakoa baino lege gogorragoa onartzeko. Espainiako testuak, esaterako, aurretiko zentsura jasotzen zuten, eta Hitlerrek nahiz Mussolinik aukera hura atzera botatzea erabaki zuten.

Erregimen berrian kazetariak “nazioaren pentsamenduaren apostolu” izan behar zuten, “fede eramaile”. Kazetaritzan jarduteko derrigorrezko agiria ezarri zuten –1 zenbakia zeramana Francori eman zioten–. Espainia osoan argitalpenen erdia desagertu zen eta hainbat lekutan galera are larriagoa izan zen: Bartzelonan 26 egunkari zeuden gerra hasi



Ezkerrean, Serrano Suñer nazien Alemanian. Goian, Franco eta Mussolinirekin. Ministroak kazetariak uniforme janztea proposatu zuten.

zenean eta, legea indarrean ipini eta gero, sei baino ez ziren geratu. 1939an lanean jarraitzeko eskaera egin zuten 4.000 kazetaritatik, 1.800ek baino ez zuten baimena lortu. Hori guztia, gaztelerazko prentsari dagokionez. Katalanez edo euskaraz idatzitakoentzat ez zuten zirrikiturik utzi lege berriak. Esaterako, Zeruko ARGIA ez zen 1936tik aurrera argitaratu, eta 50eko hamarkadan saiakerak egin arren, ez zion jardunari 1963ra arte berriro helduko.

Hala ere, batzuentzat legea ez zen nahikoa gogorra nonbait, eta muturreko proposamenak luzatu zituzten. Deigarriena, Ramon Serrano Suñer ministroak egindakoa: kazetariak uniforme jantzi zezaten nahi zuten. Prototipoa eta guzti diseinatu zuten. Baina proposamena atzera bota zuten azkenean. Agian, erredakzioetan egun haietan nahikoa uniforme bazebilelako: sotanak, falangistak, erreketek... Ziur aski, kazetarien irizpideak eta edukiak uniformatzea nahikoa zelako. ■

ARRASTOAK



Ellis uhartea, 1902.

WE ARE ELLIS ISLAND (Ellis uhartea gara) lelopean, Internet bidezko publizitate kanpaina abiatu dute AEBetan. New Yorkeko uharte horretan osasun arazoekin iritsi ziren milaka eta milaka etorkin hartu zituzten garai batean, baina orain 30 eraikin inguru bota nahi dituzte. Kanpainaren asmoa ondare arkitetkoniko eta historikoa berritzea eta gordeztea da, eta, horrela, euren historiaren atal

garrantzitsu baten memoria gordetzea. Hainbat pertsonaia famatuk –Joe Montana kiro-lariak, Katharine McPhee abeslariak eta Christian Slater aktoreak, besteak beste– euren guraso eta aitona-amonek Ellis uhartean bizitakoak kontatzen dituzte www.weareellisland.org webgunean. Horren bidez, herritar anonimoek euren senitartekoen emigratio istorioak konta ditzaten nahi dute.